

2/2014 akta

OSATEK S.A. SOZIEKATE PUBLIKOAREN ADMINISTRAZIO KONTSEILUAK 2014ko ABENDUAREN 12an EGINDAKO BILERAREN AKTA.

Lehendakariak deituta Administrazio Kontseilua osatu da Osatek S.A. sozietateak Bilboko Bizkaia Plaza eraikinean duen egoitzan 2014ko abenduaren 12an eguerdiko 12:00etan. Jarraian adierazi dira bertaratu diren pertsonak eta aztertutako gai-zerrenda:

BERTARATUAK:

LEHENDAKARIA

Guillermo Viñegra García jauna

BATZORDEKIDEAK

Jon Etxeberria Cruz jauna.

Ignacio J. Berraondo Zabalegui jauna.

Antonio Arraiza Armendariz jauna.

Pedro M^a Hernando Arranz jauna.

Fernando Aguirre De Miguel jauna.

Susana López Altuna García andrea, idazkari-lanetan.

Bileran izan da hitzarekin baina ahotsik gabe Enrique Gutiérrez zuzendari-kudeatzailea.

GAI ZERRENDA:

- 1. Fernando Aguirre de Miguel batzordekide berriaren aurkezpena eta ongietorria.**
- 2. Aurreko bilerako akta irakurtzea eta, hala badagokio, onartzea.**
- 3. 2014ko urtariletik urrira bitarteko jarduera, eta 2014ko itxiera-aurreikuspena.**
- 4. 2015eko aurrekontuak.**
- 5. Zumarragako eta Donostiako ospitaleetan EM ekipoen instalazioa.**
- 6. Osateken inbertsio-plana.**
- 7. Osarean Kontratuaren itxiera eta Telelaguntza Zerbitzu Publikoaren kontratua berritzea.**
- 8. Osatek Osakidetzako fakturazio elektronikoaren plataformari atxikitzea.**
- 9. Galde-eskeak**

1.- Fernando Aguirre de Miguel batzordekide berriaren aurkezpena eta ongietorria.

Administrazio Kontseiluko lehendakariak aurkezpenak egin ditu eta Kontseilura ongietorria eman dio Fernando Aguirre de Miguel batzordekide independente berriari. Enpresa teknologikoen eta berritzaileen munduan duen esperientzia oparoa azpimarratu du, eta Sozietatearen profil teknologiko eta berritzailearentzat oso baliagarria izango dela adierazi du.

Fernando Aguirre jauna Fisikan Lizentziatua da eta "Marketin eta Salmentak" masterra du, bere ibilbide profesionala teknologiarren eta eduki digitalen esparruan egin du. Hewlett

Packarden eta Ericssonen egin zuen lan, eta bertan erantzukizun-karguak izan zituen mundu mailan telemetriaren eta aplikazio berezien esparruan, besteak beste, telemedikuntzan eta telelaguntzan. Geroago Owasy konpainia sortu zuen, ezintasunetara eta hirugarren adinera egokitutako telefoniako eta telemetriako moduluetan eta sistemetan espezializatua.

Gaur egun ICT eta bio-teknologiaren esparruan konpainia berrien negozio-sustapena, inbertsiogileak eta finantziak bilatzen aritzen den aholkularitza-enpresa bat du. ICEXeko aholkulari estrategikoa da, eta EBeko H2020 Programako proiektuetarako ebaluatzaile-aholkularia. Ingelesa, frantsesa eta euskara hitz egiten ditu.

Batzordekide berriak lehendakariaren hitzak eskertu ditu eta Administrazio Kontseiluko kideak agurtu ditu.

2.- Aurreko bilerako akta irakurtzea eta, hala badagokio, onartzea.

Aurreko bilerako akta irakurri eta onartu da.

3.- 2014ko urtarriletik urrira bitarteko jarduera, eta 2014ko itxiera-aurreikuspena.

Zuzendari-kudeatzaileak 2014ko urtarriletik urrira bitarteko jardueraren berri eman du:

Erresonantzia Magnetikoa:

- Paziente kopurua: 71.871 (2013ko aldi berean baino % 2,24 gehiago)
- Miaketa-kopurua: 94.432 (2013ko aldi berean baino % 3,52 gehiago)
- Lan egindako txanda-kopurua: 5.281 (2013ko aldi berean baino % 3,31 gehiago)
- Miaketa-kopurua/txanda bakoitzeko: 17,88 (2013ko aldi berean baino % 0,21 gehiago)
- Proba diagnostikoa egiteko itxarote-zerrendako paziente-kopurua 2014ko urriaren 31n: 4.128 (2013ko aldi berean baino % 13,25 gehiago)
- Proba diagnostikorako batez beste itxarondako denbora 2014ko urriaren 31n (anbulategiko pazienteak): 28,77 egun (2013ko aldi berean baino % 26,63 gehiago)
- 24 ordu baino gutxiagotan egindako proben ehunekoa (ospitaleratutako pazienteak): % 94,98 (2013ko aldi berean 93,81)
- 7 egun baino gutxiagotan egindako txostenen ehunekoa (anbulategiko pazienteak): % 93,12 (2013ko aldi berean % 89,98)
- 72 ordu baino gutxiagotan egindako txostenen ehunekoa (ospitaleratutako pazienteak): % 98,61 (2013ko aldi berean % 98,38)

Telelaguntza Zerbitzu Publikoa (betiON)

- Erabiltzaile kopurua 2014.10.31n: 33.432 (2014ko urtarrilean baino % 9,9 gehiago).
- Erabiltzaileen hazkunde garbia/hilean: 320.
- 65 urtetik gorakoen estaldura: % 7,53.
- 80 urtetik gorakoen estaldura: % 19,69.
- Ahots-deien kopurua/egunean: 2.763.
- Ekipoen autotxekeo-kopurua/egunean: 4.634.
- Desbideratzerik gabe erantzundako deien ehunekoa: % 85,92.
- Aholku Sanitariora egindako desbideratze-kopurua: 1.569.
- Osakidetzako Aurretiko Zitara egindako desbideratze-kopurua: 780.

- Erabiltzailearen kontaktuetara egindako desbideratze-kopurua: 741.
- SOS Deiak-era egindako desbideratze-kopurua: 116.
- betiON Unitate Mugikorrera egindako desbideratze-kopurua: 168.

Administrazio Kontseiluak positiboki baloratzen du jarduera, eta oso komenigarria iruditzen zaio Osakidetzarekin batera jardutea Osakidetzako Zerbitzu Erakundeen baitan EMaren preskripzioa egokitzeke.

2014ko ekitaldirako aurreikusitako itxiera ekonomikoa gai-zerrendako hurrengo puntuan sartuta dago, eta gaiaz hitz egiteko sartu da bileran ekonomia zuzendaria.

4.- 2015eko aurrekontuak.

Ekonomia zuzendariak 2014rako aurreikusitako itxiera eta 2015eko ekitaldirako aurrekontuaren zirriborroa aurkeztu ditu.

2014ko ekitaldirako aurreikusitako itxiera ekonomikoa:

2014ko ekitaldiaren itxiera negatiboa izango dela aurreikusten da, hain zuzen ere Erresonantzia Magnetikoaren arloan behera egin duelako fakturazioaren zenbatekoak Osakidetzarekin 2014rako ezarritako Hitzarmen Arauemaileko baldintzen arabera.

2015erako Aurrekontu Proiektua

Itxiera positiboa izango dela aurreikusten da, hain zuzen ere, Erresonantzia Magnetikoaren arloan gora egingo duelako fakturazioaren zenbatekoak. Nolanahi ere, Osakidetzarekin egingo den hitzarmenean adostutako baldintzen esku egongo da.

Telelaguntzaren arloan aurkeztutako aurrekontuarekin defizita eragingo litzateke, nahiz eta azkenean emaitza orekatuko duen gehigarri bat ematea espero den –aurreko ekitaldietan bezala–.

Aurrekontu honekin 2015erako inbertsio-ahalmena ez litzateke nahikoa izango ekitaldian aurreikusitako inbertsioei erantzuteko. Alde horretatik, Kontseiluak berresten du urteko emaitza-kontuak urtero eragin behar duela behar adinako inbertsio-ahalmena, Osateken ekipamendua hornitzeko/berritzeko planaren arabera, eta alderdi hori kontuan izan behar da Osakidetzarekin hitzarmenak negoziatzen direnean.

5.- Zumarragako eta Donostiako ospitaleetan EM ekipoen instalazioa.

Donostiako eta Zumarragako ospitaleetan Erresonantzia Magnetikoko ekipo berriak instalatzeko kontratua Philips enpresari esleitu zitzaion 2014ko irailaren 9an.

Berehala ekin zitzaion lanei bi ospitaleetan, eta bilera hau egin den datan amaituta dago Zumarragako Unitateko ekipoen instalazioa. Donostiakoa instalatzen abenduan amaituko dute, eta denbora batean doikuntzak eta kalibrazioak egin ondoren ekipo berriak 2015ko urtarrilean bete-betean ariko dira lanean.

6.- Osateken inbertsio-plana.

Zuzendari-kudeatzaileak datozen ekitaldietarako (2015, 2016 eta 2017) aurreikusten diren inbertsioak aurkeztu dizkio Kontseiluari. Batez ere EM ekipoak berrituko eta/eguneratuko

dira, irudien post-tratamenduko tresna berri bat erosiko da eta Sozietatearen aplikazio informatiko korporatiboak berrituko dira.

Kontseiluak erabaki du Administrazio Kontseiluaren hurrengo bilera aurkez dadila Galdakaoko Unitatean EM ekipo bat ordezkatzeko 2015erako aurreikusitako inbertsioari buruzko informazio xehatua, baimena emateari begira.

7.- Osarean kontratuaren itxiera eta Telelaguntza Zerbitzu Publikoaren kontratua berritzea.

Zuzendari-kudeatzaileak jakinarazi du amaitutzat eta itxitzat eman dela Osarean proiektua garatzeko kontratua.


Zuzendari-kudeatzaileak Kontseiluari jakinarazi dio luzatu egin dela Telelaguntza Zerbitzu Publikoa hornitzeko Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailarekin sinatutako kudeaketa-agindua, eta luzatu egin dela, era berean, Televida/GSR ABEErekin egindako kontratua ere.

8.- Osatek Osakidetzako fakturazio elektronikoaren plataformari atxikitzea.

Susana López Altuna batzordekide eta idazkariak aurkeztutako aldeko txosten juridikoan oinarrituta, Administrazio Kontseiluak onartu egin du Osatek "faktura elektronikoa" egiteko Osakidetzaren plataformari atxikitzea.

9.- Galde-eskeak.

Aztertzeke beste gairik ez dagoenez, amaitutzat eman da Kontseiluaren bilera adierazitako eguneko 15:00etan.



IDAZKARIA
Stua.: Susana López Altuna



LEHENDAKARIA
Stua.: Guillermo Viñegra García